

2021-2022-2023 urteetan txurreria jartzeko lurzoruaren okupaziorako baimenak emateko prozedura arautzen duen baldintza-plegua

1. Deialdiaren xedea

2021., 2022. eta 2023. urteetan zehar, behean jasotako epealdietan, txurroak saltzeko jarduerarako ibilgailuekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimenak ematea Fraiskozuri Plazan.

Epealdiak:

- 1.- 2021eko abenduaren 1etik 2022ko urtarrilaren 15era arte.
- 2.- 2022ko otsailaren 1etik martxoaren 2ra arte.
- 3.- 2022ko martxoaren 3tik apirilaren 18ra arte.
- 4.- 2022ko urriaren 15etik azaroaren 30era arte.
- 5.- 2022ko abenduaren 1etik 2023ko urtarrilaren 15era arte.
- 6.- 2023ko otsailaren 1etik martxoaren 2ra arte.
- 7.- 2023ko martxoaren 3tik apirilaren 6ra arte.*
- 8.- 2023ko urriaren 15etik azaroaren 30era arte.
- 9.- 2023ko abenduaren 1etik 2024ko urtarrilaren 15era arte.

**Epealdi hauek irizpide orokorretara egokitzeko unean doitu ahal izango dira, hain zuzen epealdiaren amaiera Aste Santua pasatu arte (Pazko Astelehenera arte).*

Deialdiaren xedea da horretarako interesa dutenen artean aipatutako baimena emateko prozedura zehaztea eta jakitera ematea.

2. Eskaerak

Aipatutako jarduerarako legezko baldintzak betetzen dituzten enpresek edo jarduteko gaitasun juridikodun pertsonak egin ditzakete eskaerak.

Eskaera idatziz aurkeztuko da udaleko erregistroan, eta bertan azaldu beharko da zein epealditan nahi duten okupaziorako eta salmentarako baimena, eta baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebeharrak guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela.

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 5eko arratsaldeko 14:30ean bukatuko da.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Kalez kaleko salmentarako eta janarien salmentarako baldintzak betetzen dituela ziurtatu beharko du eta horretarako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu aurretik:

- a) Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean altan egotearen agiria.
- b) Osasun-txartela eta jardungo dutenek janariak manipulatzeko ziurtagiria.
- c) Haziendako betebeharratan egunean dagoela egiaztatzeko agiria.
- d) Jarduera hori babesteko erantzukizun zibileko poliza kontratatuta izatea.
- e) Jarduera ekonomikoen zergan altan egotea.
- f) Salmentan jardungo dutenen izen eta abizenak eta titularrarekin duten harremana.
- g) Elikagai-establezimenduen eta elikatze-jardueren erregistroan altan egotea.
- h) Jarduerarako erabiliko duen ibilgailuak ikuskapen sanitarioa eta ibilgailuaren ikuskapen teknikoa gaindituta izatea.

2.- Halaber, jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea izango da, eta udalak ere jarduera horren aurrean hirugarrenaren izaera izango du.

3.- Bestalde, honako hauek ere izan beharko dira kontuan:

- a) Argindarra behar izango balu Iberdrolarekin kontratatu beharko du, eta debekatuta dago udal saretik hartzea. Erabili beharreko argindarra 10 Kw baino gutxiago denean dagokion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez, eta 10 Kw-tik gorakoa denean buletina eta proiektua beharko dira, eta instalatzaile ofizial horrek egin beharko ditu lotura edo engantxe guztiak.
- b) Ura hartzeko, dagokion kontratua sinatu beharko du udalarekin, eta dagokion instalazioa ere bere kontura izango da.
- c) Okupatutako eremua hartutako egoera berdinean utzi beharko du okupazioa bukatzen denean.
- d) Okupazioari dagokion tasa ordaindu beharko du. Horretarako, erabakiaren jakinarazpena Kontuhartzailetzari ere egingo zaio.

Baldintza guzti hauek betetzen direla egiaztatu beharko du okupazioa egiten hasi aurretik.

4.- Egun bizi dugun egoera dela-eta, jarduerari dagokionean bezeroen osasunerako hartu beharreko segurtasun-neurriak bermatuko ditu, indarrean daudenak eta Osasun Saitetik ezarri ahal diren guztiak; eta beste batzuen artean, eta gutxieneko izaerarekin, honako hauek:

- a) Eskuak garbitzeko hidrogela edo antzekoa izango dute bezeroen eskura.
- b) Bezeroekiko distantzia bi metrokoa izatea ezin denez ziurtatu, maskara erabiltzea ezinbestekoa da, eta bezeroak ere maskararekin egon beharko du derrigorrez, eta bestela ezingo da artatu; eta horren informazioa ikusgai jarriko du postuan bertan.

Halaber, bezero bakoitza artatu ondoren eta hurrengo artatu aurretik eskuak desinfektatuko ditu.

- c) Erabilitako ibilgailua garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak zorrotz beharko dira eta bezeroek ukitzen dituzten elementuak ere desinfektatu egin beharko dira.

d) Bezeroen itxoite-gunea ibilgailutik bi (2) metrora egotea eta itxoiten dauden bitartean beraien artean ere bi (2) metroko distantzia egotea bermatuko du, horretarako behar den seinalizazioa jarriko duelarik.

e) Saltzeko duen janaria babestuta izango du eta bezeroek ezingo dute ukitu inolaz ere.

5.- Baimena bertan behera laga ahalko du udalak baldin eta osasun-neurriak kontuan hartzen ez badira edo/eta araudiak horrela aginduko balu; eta horren aurrean udalak ez du inongo erantzukizunik izango.

6.- Behin baldintzak beteta, baimenari dagokion informazioa jasoko duen txartela emango zaio adjudikazio-hartzaileari; bertan adierazita agertuko da zein den baimenaren titularra (izen eta abizenak), zer salduko duen, NAN zenbakia, ibilgailuarekin jardungo balu horren matrikula, eta baimenaren epealdia.

Halaber okupazioari dagozkion tasak ordaindu izanaren agiria izan beharko du eskura.

Dokumentazio hau herritarren bistan egongo da eta udal agintariek eskatzen badiote ere erakutsi egingo die.

7.- Hizkuntzari dagokionean, honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Jendaurrean jartzen diren kartelak eta bestelako informazioak gutxienez euskaraz egon beharko dira (edo, behar denean, euskaraz eta gaztelaniaz, biak material berean eta euskarari lehentasuna emanda). Testuak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, UEMAra jo daiteke (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatera: 943 81 66 99 edo komunikazioa@uema.eus), gutxienez astebeteko aurrerapenarekin.

8.- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.

4. Adjudikazioa

Interesdun bat baino gehiago izanez gero, adjudikazioa egiteko eskaera aurkeztu dutenen artean epealdia aukeratzeko hurrenkera zozketa bidez ezarriko da.

Hurrenkeraren arabera banaka epealdi bat aukeratuko dute eta hurrengo interesdunera pasatuko da. Epealdiak soberan geldituko balira, hasieratik ekingo zaio berriro, hurrenkerari jarraituz.

Zozketa hau **azaroaren 9an** egingo da, **eguerdiko 13:30ean**, Bergarako Udaletxean, lehen solairuan.

Salmentan jardungo dute baimena dutenek eta haiekin familia- edo lan-harremana dutenek, eta horren berri emango dute aurretik.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako saltokirako gunea gordeko die, eta udalaren baimenik ez duen beste inork jarduera horretan ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo zeditu. Aldiz, esleipendunen artean epealdi-aldaketak onartuko dira, aurrez jakinarazi beharko direlarik.

Interesik ez balu, salmenta-baimeneko data bakoitza iritsi baino gutxienez 5 lanegun lehenago Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta zozketan erreserbarako edo zerrendan atera den hurrengoari adjudikatuko zaio.

Pliego de condiciones que regulan el procedimiento de concesión de autorizaciones de ocupación de suelo para instalación de churrería, durante los años 2021-2022-2023

1. Objeto de la convocatoria

Concesión de autorizaciones para ocupación de suelo público con vehículo para actividad de venta de churros, durante los años 2021-2022-2023, en los periodos señalados a continuación, en la Plaza Fraiskozuri.

Periodos:

- 1.- Desde el 1 de diciembre de 2021 hasta el 15 de enero de 2022.
- 2.- Desde el 1 de febrero hasta el 2 de marzo de 2022.
- 3.- Desde el 3 de marzo hasta el 18 de abril de 2022.
- 4.- Desde el 15 de octubre hasta el 30 de noviembre de 2022.
- 5.- Desde el 1 de diciembre de 2022 hasta el 15 de enero de 2023.
- 6.- Desde el 1 de febrero hasta el 2 de marzo de 2023.
- 7.- Desde el 3 de marzo hasta el 6 de abril de 2023 *.
- 8.- Desde el 15 de octubre hasta el 30 de noviembre de 2023.
- 9.- Desde el 1 de diciembre de 2023 hasta el 15 de enero de 2024.

** Estos periodos podrán ajustarse en su momento para adecuarse a los criterios generales, concretamente hasta después de Semana Santa (Lunes de Pascua).*

Constituye objeto de la convocatoria establecer y dar a conocer el procedimiento de concesión de dichas autorizaciones entre las personas o entidades que estén interesadas en ello.

2. Solicitudes

Podrán formular sus solicitudes todas las empresas o personas jurídicas con capacidad de obrar que cumplan los requisitos legales para dicha actividad.

La solicitud será presentada por escrito en el Registro Municipal y, en la misma, se deberán indicar las fechas para las que desean la autorización de ocupación y venta, manifestando así mismo que conocen y están dispuestos a cumplir todas las obligaciones recogidas en los presentes pliegos de condiciones.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 5 de noviembre de 2021 a las 14:30 horas de la tarde.

3. Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias

Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias o autorizadas:

1.- Deberá acreditar el cumplimiento de los requisitos para venta ambulante y alimentaria y, para ello, previamente deberá presentar los siguientes documentos:

- a) Documento acreditativo de estar dado/a de alta en el Régimen de Autónomos de la Seguridad Social.
- b) Tarjeta sanitaria y carné de manipulación de alimentos de quienes vayan a ejercer la actividad.
- c) Documento acreditativo de encontrarse al corriente en sus obligaciones con Hacienda.
- d) Tener contratada una póliza de responsabilidad civil que cubra dicha actividad.
- e) Estar dado/a de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- f) Nombre y apellidos de quienes vayan a ejercer la actividad de venta, y su relación con la persona o entidad titular.
- g) Estar dado/a de alta en el registro de establecimientos y actividades alimentarias.
- h) El vehículo que se utilice para la actividad deberá haber superado la inspección sanitaria y la inspección técnica del vehículo.

2.- Así mismo, será responsable de los posibles daños que pudiera generar la actividad, y ante la misma el ayuntamiento tendrá también la consideración de tercero.

3.- Por otro lado, deberá tener también en cuenta los siguientes aspectos:

- a) En caso de necesitar suministro eléctrico, deberá contratarlo con Iberdrola, quedando prohibido el suministro a partir de la red municipal. Si la potencia necesaria es inferior a 10 Kw, deberá cumplimentar el boletín correspondiente mediante un instalador oficial, y si la potencia es de 10 Kw o superior, será preciso el boletín y un proyecto, debiendo efectuar todas las conexiones y enganches dicho instalador oficial.
- b) Para el suministro de agua, deberá suscribir con el ayuntamiento el correspondiente contrato, siendo la instalación a cargo de la persona o entidad solicitante.
- c) Cuando finalice la ocupación, deberá dejar el espacio ocupado en las mismas condiciones en las que estaba.
- d) Deberá abonar la tasa correspondiente a la ocupación. Para ello, la resolución también se comunicará al Departamento de Intervención.

Deberá acreditar el cumplimiento de todas estas condiciones antes de iniciar la ocupación.

4.- Dada la situación que vivimos actualmente, en cuanto respecta a la actividad deberá garantizar las medidas de seguridad necesarias para la salud de la clientela, cumpliendo todas aquellas medidas que estén vigentes y/o puedan establecerse desde el Departamento de Sanidad; debiendo cumplir, entre otras y como mínimo, las siguientes:

- a) Tendrán hidrogel o similar a disposición de la clientela para la limpieza de manos.
- b) Dado que no se puede garantizar la distancia de dos metros respecto a la clientela, será obligatorio el uso de mascarilla, también para el/la cliente, ya que en caso contrario no podrá ser atendido/a. Dicha información deberá ponerla bien visible en el puesto.

Así mismo, tras atender a una persona, deberá desinfectarse las manos antes de atender a la siguiente.

c) Deberán extremarse las medidas de higiene y desinfección del vehículo utilizado. También se deberán desinfectar todos los elementos que toque la clientela.

d) Deberá garantizar una distancia de dos (2) metros desde el vehículo hasta la zona de espera de la clientela, así como la misma distancia de dos (2) metros entre las personas mientras están esperando, colocando la señalización precisa para ello.

e) Los alimentos a la venta deberán estar protegidos, sin que puedan ser tocados por la clientela de ningún modo.

5.- El ayuntamiento podrá dejar sin efecto esta autorización en caso de no adoptarse las medidas sanitarias y/o si así lo ordenara la normativa, sin que ello implique responsabilidad alguna para el ayuntamiento.

6.- Una vez cumplidos los requisitos, se le entregará una tarjeta que recogerá la información correspondiente a la autorización, con indicación de la identidad de la persona titular de la autorización (nombre y apellidos), los productos a la venta, el número de DNI, la matrícula del vehículo –si lo utiliza para la actividad– y el periodo de tiempo autorizado.

Asimismo, deberá tener disponible el documento acreditativo de haber abonado las tasas correspondientes a la ocupación.

Esta documentación estará a la vista del público y deberá mostrársela a las autoridades municipales si así se lo requirieran.

7.- Respecto a la lengua, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Todos los carteles expuestos al público, así como cualquier otra información, deberán estar al menos en euskera (y si fuera preciso en euskera y castellano, ambos con el mismo material y dando prioridad al euskera). En caso de necesitar ayuda para traducir los textos al euskera, pueden contactar con UEMA, con al menos una semana de antelación (UEMA - Mancomunidad de Municipios Euskaldunes: 943 81 66 99 o komunikazioa@uema.eus).

8.- Deberán disponer de hojas de reclamaciones y dar cuenta de ello exponiéndolo al público.

4. Adjudicación

En caso de haber más de una persona interesada, el orden para elegir el periodo de ocupación se determinará mediante sorteo entre quienes hayan presentado solicitud de adjudicación.

Siguiendo dicho orden, elegirán individualmente un periodo y se pasará a la siguiente persona interesada. En caso de quedar periodos disponibles, se reanudará desde el principio por orden de prelación.

El sorteo se celebrará el día **9 de noviembre, a las 13:30 horas del mediodía**, en el primer piso del Ayuntamiento de Bergara.

Las personas que realicen la venta serán las que cuentan con la autorización y quienes tengan con ellas algún vínculo familiar o laboral, debiendo dar cuenta de ello previamente.

5. Obligaciones del ayuntamiento

El ayuntamiento reservará con antelación el espacio para el punto de venta establecido, garantizando que no desarrollará dicha actividad nadie que no tenga autorización municipal.

6. Derecho de explotación

La persona o entidad adjudicataria no podrá ceder a terceros la autorización o derecho de ocupación. Sin embargo, se permitirán cambios de periodo entre las personas adjudicatarias, debiendo comunicarlo previamente.

En caso de no estar interesada, deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Bergara con una antelación mínima de 5 días hábiles respecto a cada fecha de autorización de venta, y se realizará la adjudicación a favor de quien haya quedado siguiente en la reserva o lista de espera del sorteo.